

29/1987 Legea, abenduaren 18koa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa

(EAO, 1987. urteko abenduaren 19koa)

24. artikulua. Sortzapena

- 1.** Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan eta bizitzaren gaineko aseguruetan, zerga sortuko da, kausatzailea edo aseguruduna hiltzen den egunean, edo, bestela, absentearen inguruko heriotza-adierazpena irmo bihurtzen denean, Kode Zibilaren 196. artikulua arabera. Hala eta guztiz ere, kausatzailea bizirik dagoela, eskuraketak gertatu badira, oinordetza-kontratu nahiz -itunen ondorioz, zerga sortuko da, hitzarmen hori zein egunetan gertatu edo egin, eta egun horretan bertan.
- 2.** Doako eskualdaketak inter vivos gertatzen direnean, zerga sortuko da, egintza edo kontratua zein egunetan gertatu edo egin, eta egun horretan bertan.
- 3.** Ondasunak eskuratzean, eskuraketa horren eragingarritasuna etenda geratu bada, baldintza, epe-muga, fideikomiso nahiz bestelako mugen ondorioz, beti ulertuko da eskuraketa gertatu dela, muga horiek desagertzen diren egunean.